DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

donostia
kultura

# ANTZERKIA
# TEATRO
# DANTZA
# MUSIKA

**UDA**
VERANO
**2018**





## AURKIBIDEA ÍNDICE


### UZTAILA JULIO

01
**MARÍA BERASARTE & PEPE RIVERO**
DELIRIO
**Victoria Eugenia**
Pág. 04 Orr.

05 - 08
**JOKOZ KANPO**
BOROBIL TEATROA
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 05 Orr.

05 – 08
**¡CÓMICO!**
RAFAEL ÁLVAREZ
*EL BRUJO*
**Victoria Eugenia**
Pág. 06 Orr.

12 – 15
**I WANT YOU BACK**
MUSICAL MICHAEL JACKSON
**Victoria Eugenia**
Pág. 07 Orr.

12 - 15
**ESPINETE NO EXISTE**
EDUARDO ALDÁN
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 08 Orr.

18 - 22
**ERLAUNTZA**
VAIVÉN PRODUCCIONES
**Victoria Eugenia Club**
Pág. 09 Orr.

25-29
**53 HEINEKEN JAZZALDIA**
**Victoria Eugenia**
Pág. 10 Orr.

31
**NOE**
MALANDAIN BALLET BIARRITZ
**Victoria Eugenia**
Pág. 11 Orr.

### ABUZTUA AGOSTO

01
**NOE**
MALANDAIN BALLET BIARRITZ
**Victoria Eugenia**
Pág. 11 Orr.

01 - 05
**CAMIONETA Y MANTA**
ANDONI FERREÑO
CARLA HIDALGO
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 12 Orr.

02 - 05
**CINCO HORAS CON MARIO**
LOLA HERRERA
**Victoria Eugenia**
Pág. 13 Orr.

6 - 12
**CONVERSACIONES CON MAMÁ**
MARÍA LUISA MERLO
JESÚS CISNEROS
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 14 Orr.

08 - 09
**PAGAGNINI**
YLLANA &
ARA MALIKIAN
**Victoria Eugenia**
Pág. 15 Orr.

08 – 11
**EZ DOK HIRU (AKUSTIKOA)**
TARTEAN TEATROA
**Victoria Eugenia Club**
Pág. 16 Orr.

10 - 12
**DESATADAS**
PAZ PADILLA
**Victoria Eugenia**
Pág. 17 Orr.

13 - 14
**SOLO FABIOLO GLAM SLAM**
FABIOLO
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 18 Orr.

14 - 19
**WE LOVE QUEEN**
BARABU-EXTRESOUND &
YLLANA
**Victoria Eugenia**
Pág. 19 Orr.

16 – 19
**ZOAZ PAKE SANTUAN**
ANE GABARAIN
MIKEL LASKURAIN
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 20 Orr.

22 - 26
**EL FUNERAL**
CONCHA VELASCO
ANTONIO RESINES
**Victoria Eugenia**
Pág. 21 Orr.

23 – 26
**MANDÍBULA AFILADA**
JON PLAZAOLA
NOEMÍ RUIZ
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 22 Orr.

29 - 31
**MAGIA DE LA MENTE, NO TE CREAS LA VERDAD**
TONI BRIGHT
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 23 Orr.

30 - 31
**JUNTOS**
KITI MÁNVER, MELANI OLIVARES, GORKA OTXOA, INÉS SÁNCHEZ
**Victoria Eugenia**
Pág. 24 Orr.

### IRAILA SEPTIEMBRE

01 - 02
**JUNTOS**
KITI MÁNVER
MELANI OLIVARES
GORKA OTXOA
INÉS SÁNCHEZ
**Victoria Eugenia**
Pág. 24 Orr.

01 - 02
**MAGIA DE LA MENTE, NO TE CREAS LA VERDAD**
TONI BRIGHT
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 23 Orr.

05 – 09
**LAS BICICLETAS SON PARA EL VERANO**
FERNANDO FERNÁN GÓMEZ
**Victoria Eugenia**
Pág. 25 Orr.

07 – 09
**EL ENJAMBRE**
VAIVÉN PRODUCCIONES
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 26 Orr.

12 - 13
**EL CASERÍO**
SASIBILL LIRIKA ELKARTEA
ASOCIACIÓN LÍRICA SASIBILL
**Victoria Eugenia**
Pág. 27 Orr.

13 – 16
**ETXEKO SALTSAK**
AITZIBER GARMENDIA
ANE GABARAIN
MIKEL LASKURAIN
AITOR FERNANDINO
**Antzoki Zaharra** **Teatro Principal**
Pág. 28 Orr.

15-16
**LOS GAVILANES**
SASIBILL LIRIKA ELKARTEA
ASOCIACIÓN LÍRICA SASIBILL
**Victoria Eugenia**
Pág. 29 Orr.

22
**LUZ**
LASALA
**Gazteszena (Egia)**
Pág. 30 Orr.

29
**CONTRA LA DEMOCRACIA**
TEATRO DEL NOCTÁMBULO
**Imanol Larzabal (Lugaritz)**
Pág. 31 Orr.

# MARÍA BERASARTE & PEPE RIVERO
DELIRIO

Uztaila **01** Julio

**VICTORIA EUGENIA**
**19:00**
**15 €**

Ahotsa Voz: **María Berasarte**
Pianoa Piano: **Pepe Rivero**
Kontrabaxua Contrabajo: **Reinier Elizarde *Negrón***
Bateria Batería: **Georvis Pico**

María Berasarte eta Pepe Riverok *Delirio* aurkezten digute. Bi munduren arteko gurutzaketa bat, musika klasikoak, jazzaren alderako zaletasun biziak eta euren euskal, espainiar eta kubatar sustraiekiko atxikimenduak batzen dituzten bi musika-kontinente. Maríaren ahotsak eta Peperen pianoak kanta originalak zein bertsioak interpretatuko dituzte; besteak beste, Joan Manuel Serraten *Aquellas pequeñas cosas*, Kurt Weill-en *Je ne t'aime pas*, Amália Rodriguesek kantatzen zuen *Estranha forma de vida* fadoa, eta Mikel Laboaren *Txoria txori*.

María Berasarte y Pepe Rivero presentan *Delirio*, un cruce de dos mundos, dos continentes musicales a los que les une la música clásica, su pasión por el jazz y el arraigo por sus raíces (vascas, españolas y cubanas). María a la voz y Pepe al piano interpretarán tanto temas originales como versiones; entre ellas *Aquellas pequeñas cosas* de Joan Manuel Serrat, *Je ne t´aime pas* de Kurt Weill, el fado *Estranha forma de vida* que cantaba Amália Rodrigues y *Txoria Txori* de Mikel Laboa.







# JOKOZ KANPO
BOROBIL TEATROA

Uztaila **05 – 08** Julio

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00**
**20 € / 15 €**
euskara

Manuk eta Martinek futbol talde banaren ardura dute. Mutil koskorrak entrenatzen dituzte, kirol miresgarri honek dituen balore guztiak eransteko asmotan. Manuk eta Martinek aspalditik ezagutzen dute elkar. Manuk eta Martinek finala dute begien bistan. Eta finala irabazi egin nahi dute. Garaipena dute nor direla frogatzeko modu bakarra, bizitzan ez daudela jokoz kanpo erakusteko aukera bakarra. *Jokoz kanpo* futbol-zelaietan dabilen bortxaz ari da, parodia eran betiere. Borobil Teatroak joko-eremu bihurtzen du agertokia, zertarako eta, komedia eran betiere, maiz futbol-munduan gertatu ohi diren jokaera irrazional eta onartezinak erakusteko. Kirolaren alderdirik ezkorrena "jokoz kanpo" uzteko.

**Joseba Apaolaza**, **Asier Hormaza** eta **Asier Sota** dira **Anartz Zuazua**k zuzendutako lan honen protagonista.

Manu y Martin son entrenadores de fútbol. Entrenan a chavales con la intención de inculcarles los valores que tiene el deporte rey. Manu y Martin se conocen desde hace tiempo. Manu y Martin han llegado a la final. Y lo único que desean es ganarla. La victoria es lo único que tienen para demostrar quiénes son. Para demostrar que, en la vida, no están fuera de juego. La violencia en el deporte sigue siendo hoy en día una realidad. *Jokoz kanpo* trata, en clave de parodia, la violencia en los campos de fútbol. Borobil Teatroa convierte el escenario en terreno de juego para mostrar en tono de comedia el comportamiento irracional e intolerable que en muchas ocasiones se da en el mundo del fútbol. Para dejar "fuera de juego" el lado más negativo del deporte.

**Joseba Apaolaza**, **Asier Hormaza** y **Asier Sota** protagonizan esta obra dirigida por **Anartz Zuazua**.



# ¡CÓMICO!
## RAFAEL ÁLVAREZ *EL BRUJO*

Uztaila **05 – 08** Julio

**VICTORIA EUGENIA**
**20:00**
**28 € / 24 € / 20 €**
castellano

Ikuskizun hau antzerkian eman ditudan azken hamar urteen *almagrea* –okre gorria– da. Honela dio Dario Fok: “Almagrea darabilte margolariek noiz eta, horma lehorraren gainean zuzen-zuzenean, gainazala berdindu baino lehen, freskoaren zirriborroa egiten dutenean. Marrazki soila, besterik ez...”. Bada, ni ere horixe egiten ari naiz, baina alderantziz. Distilatze-lana. Kolore nahaspila kendu, eta hauxe geratzen da: *¡Cómico!*, muina. Egunetik egunera, aldatu egin daiteke kanpoko itxura, pasadizo bat dela, gaurkotasuna duen albisteren bat, hor egoteko modu bereziren bat, ikus-entzuleen sentipen modu bat... baina hor irauten du *¡Cómico!* obrak betiere. Azalduko dut zer esan nahi duten niretzat barre-une horiek, nola egin nituen ikuskizun batzuk, zertarako eta zergatik egin nituen, eta azken hamar urte hauetako txatal batzuk gogoratuko ditut. Lehen, obrak idazten nituen; orain, obra horiek muntatzeko eta egiteko aldamioak erakutsiko ditut. Espero dut ikus-entzuleekin partekatzea une horiek, badakit ezagutzen nautela eta zer espero duten nigandik: gozatzea. Beraz, nik ere gozatzea espero dut”.

“Este espectáculo es el almagre de mis últimos diez años de teatro. Dice Dario Fo: “Almagre es el término que emplean los pintores cuando, directamente sobre el muro seco, antes de enrasar, dibujan el proyecto del fresco. Únicamente el dibujo...”. Pues yo estoy haciendo lo mismo, pero al revés. Una labor de destilado. Quito la amalgama de colores y lo que queda es: *¡Cómico!*. Una esencia. Cada día puede variar la forma exterior, en función de una anécdota, una noticia de actualidad, una manera especial de estar ahí y de sentirse el público... pero siempre es *¡Cómico!*. Explicaré lo que significan para mi esos momentos de risa, cómo hice algunos espectáculos, para qué y por qué los hice, y recordaré algunos de los fragmentos de estos últimos diez años. Si antes escribía las obras ahora voy a mostrar el andamiaje con el que se montan y se hacen. Espero compartir esos momentos con un público que sé que me conoce y lo que espera de mi: gozar. Espero, pues, yo también gozar”.





# I WANT YOU BACK
## MUSICAL MICHAEL JACKSON

Uztaila **12 – 15** Julio

**Victoria Eugenia**
12: **21:00** **32 € / 30 € / 20 €**
13: **21:00,** 14: **18:00 + 21:00,** 15: **18:00** **37 € / 32 € / 20 €**
castellano

*I Want U Back* mundu osoan gogoratzen duten Michael Jackson idoloari egindako omenaldirik handiena da, eta Espainian duen jarraitzaile andanak eskatutako topagune bihurtzeko sortu dute.

Ikuskizunean, banda ikusgarri bat izango da zuzenean, fideltasun harrigarriz emango baitu artistaren errepertorioa, bai eta dantza-talde harrigarri bat ere, SacMJJ buru duela, munduan diren Michael Jackson-en impersonator onenetariko bat. Ia bi ordu iraungo du emankizunak, kantariari ospea ekarri zioten kanta arrakastatsuez ondo osatuta, Pop-aren Errege bihurtu baitzuten, eta historian disko gehien saldu duen artista.

*I Want U Back* es el homenaje definitivo al añorado ídolo mundial Michael Jackson, y se ha creado para convertirse en el punto de encuentro demandado por su legión de seguidores en España.

El espectáculo cuenta con una impresionante banda en directo que reproduce con increíble fidelidad el repertorio del artista y con un espectacular cuerpo de baile, encabezado por SacMJJ, considerado como uno de los mejores impersonators de Michael Jackson en el mundo, ofreciendo un completo recorrido de casi dos horas de duración por los éxitos que fraguaron su leyenda y que le consagraron como el definitivo Rey del Pop y el artista con más discos vendidos de la historia.



# ESPINETE NO EXISTE
## EDUARDO ALDÁN

Uztaila **12 - 15** Julio

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00**
**25 € / 20 €**
castellano

Komedia nostalgiko eta barrabas hau haurtzaroaz eta zenbait belaunaldi markatu dituzten gauza txikiez ari da. Eskolako materiala, litxarreriak, jostailuak edo telebista dira jorratuko diren gai batzuk, eta ikus-entzulea guztiz identifikatuta sentituko da gaiokin. Ikuskizuna iraganera egindako bidaia da, musika, irudiak eta komedia direla medio. Eduardo Aldán denboran atzera egiten saiatuko da gu ume senti gaitezen berriro, baina ikuspegi bitxi batez: gure haurtzaroko alderdi ilunenak aurkituz. *Espinete no existe*k frogatu du ikuskizuna ez ezik esperientzia osoa dela, non ikus-entzuleak berriro bizi baititu haurtzarora eramango dituen emozioak.

Una comedia nostálgica y canalla sobre la infancia y las pequeñas cosas que han marcado a varias generaciones. El material escolar, las chucherías, los juguetes o la televisión son algunos de los temas con los que el espectador se sentirá completamente identificado. El espectáculo es todo un viaje al pasado a través de la música, las imágenes y la comedia. Eduardo Aldán trata de volver atrás en el tiempo para hacernos sentir niños otra vez, pero con una curiosa perspectiva, descubriendo los aspectos más oscuros de nuestra infancia. *Espinete no existe* ha demostrado ser, no sólo un espectáculo sino, una experiencia completa, en la que el espectador revive emociones que le transportan a su propia infancia.





# ERLAUNTZA
## VAIVÉN PRODUCCIONES

Uztaila **18 - 22** Julio

**VICTORIA EUGENIA CLUB**
18 – 20: **20:00;** 21: **20:00 + 22:30;** 22: **19:00**
**15 €** euskara

Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai...

Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira... **Itziar Atienza**, **Aitziber Garmendia**, **Sara Cozar**, **Itziar Urretabizkaia**, **Getari Etxegarai** eta **Leire Ruiz** dira lan honen protagonista, **Mireia Gabilondo**ren zuzendaritzapean.

*Erlauntza*, Victoria Eugenia Antzokiak, Gasteizko Antzoki Zaharrak eta Arriaga Antzokiak ekoiztutako lana da Antzerkigintza Berriak programaren barne.

Un grupo de amigas de la infancia ha ido a una casa rural para celebrar la despedida de soltera de una de ellas. Pero los años no pasan en balde y aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o sí...

Lo que a priori iba a ser un fin de semana a loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, confesiones, alcohol, droga y una colmena. Se dice que en el reino animal las abejas son los seres que mejor se comunican. Y al parecer se comunican bailando... **Itziar Atienza**, **Aitziber Garmendia**, **Sara Cozar**, **Itziar Urretabizkaia**, **Getari Etxegarai** y **Leire Ruiz** protagonizan esta obra bajo la dirección de **Mireia Gabilondo**.

*Erlauntza* es una obra coproducida por el Teatro Victoria Eugenia, el Teatro Principal de Vitoria y el Teatro Arriaga, en el marco del programa Nuevas Dramaturgias.



ESTREINALDIA
ESTRENO

# 53 HEINEKEN JAZZALDIA

Uztaila **25-29** Julio

**VICTORIA EUGENIA**
**www.heinekenjazzaldia.eus**

Heineken Jazzaldiak askotariko programa bat prestatu du 53. ediziorako, maila handikoa, ikus-entzuleen oniritzia beretzeko asmoz, azken urteotan mukuru bete baitituzte hiri osoan zehar barreiaturiko 17 agertokiak. Ehun emanalditik gora izango dira, eta artistarik nabarmenenak, honako hauek: Chick Corea, Gregory Porter, Kenny Barron, Caetano Veloso, Cécile McLorin Salvant eta Brad Mehldau. Jazzaldiak Victoria Eugenia Antzokian izango ditu kontzerturik erakargarrienetako batzuk. Jazza eta musika etnikoak nahasiko dira modurik interesgarrienean eta musika onaren zaleek gozatu ederra hartuko dute.

El Heineken Jazzaldia ha preparado para su 53ª edición un programa variado y de primera línea con el que espera seguir disfrutando del favor del público, que en los últimos años está abarrotando sus 17 escenarios, repartidos por toda la ciudad. Serán más de cien actuaciones, con Chick Corea, Gregory Porter, Kenny Barron, Caetano Veloso, Cécile McLorin Salvant y Brad Mehldau como cabezas de cartel. En el Teatro Victoria Eugenia celebrará el Festival algunos de sus conciertos más atrayentes, con una interesante combinación de jazz y músicas étnicas que deleitará a todos los amantes de la buena música.








# NOE
## MALANDAIN BALLET BIARRITZ

Uztaila **31** Julio – Abuztua **01** Agosto

**VICTORIA EUGENIA**
**20:00**
**32 € / 23 € / 15 €**

Uholde Handiaren mitoaren bitartez, zenbait tradiziotan ageri baita, Noe pertsonaia baikorra hausturaren antzeko zerbaiten ordezkari da gizateriaren historian. Iraganaren laburpen gisa, etorkizunaren prestakuntza gisa, aurrekoa baino hobea izango den mundu berri baten sorrera sinbolizatzen du. Bigarren Kreazio bat, lehena ezabatzen duena, lehena gaitzak eta gizakien ahuleziak desbideratu ondoren. Ondorioz, Adan berri bat, ez lurretik sortua, uretatik baizik, Hasiera liburuan lehenik hilkor gisa agertzen dena, biziaren sinbolo izan aurretik: izan ere, sorgune eta sehaska duen Arkatik irten eta gero, Noek eta senideek mundua jendeztatuko dute berriro.

*Noé* Théâtre National de Chaillot, Opéra de Saint-Etienne, Donostiako Victoria Eugenia Antzokia – Ballet T, DSS2016EU eta CCN Malandain Ballet Biarritzen arteko ekoizpena da.

A través del mito del Diluvio, común a diversas tradiciones, la figura optimista de Noé encarna algo semejante a una ruptura en la historia de la humanidad. Como recapitulación del pasado, como preparación del futuro, simboliza el nacimiento de un mundo nuevo, mejor que el anterior. Una segunda Creación que borra la primera, alterada por el mal y la debilidad de los hombres. En consecuencia, un nuevo Adán, uno que no ha surgido de la tierra, sino del agua, que en el Génesis interviene primero como elemento mortal antes de ser símbolo de vida: efectivamente, al salir del Arca, a la vez matriz y cuna, Noé y los suyos van a repoblar el mundo.

*Noé* es una coproducción de Teatro Victoria Eugenia de San Sebastián – Ballet T, Théâtre National de Chaillot, Opéra de Saint-Etienne, DSS2016EU y CCN Malandain Ballet Biarritz.



# CAMIONETA Y MANTA
## ANDONI FERREÑO
## CARLA HIDALGO

Abuztua **01 - 05** Agosto

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
01 - 04: **20:00**
05: **19:00**
**23 € / 18 €**
castellano

Albentar errepertorio-konpainiak neke handiak pairatzen ditu bizibidea ateratzeko, 80ko hamarkadaren hasieran. Kasinoetan, parrokia-zineetan, bingoetan... jarduten dute horretarako, eta edozein genero eszenaratzen ausartzen dira, hasi errebista zatietatik, segi *vaudeville*arekin, eta sitcom erako komedia edo haurrentzako funtzioetaraino. Ospe baino neke handiagoz, egoerarik barregarrienetan sartzen dira.

*Camioneta y manta*k artista txiki batzuen bizitza erakusten digu; zenbait komedia-estilo agertzen ditu, eta algara eragiten du etengabe, samurtasunarekin eta emozioarekin batera.

La compañía de repertorio Albentar trata de sobrevivir, a principios de los 80, actuando en casinos, cines parroquiales, bingos... Para lograrlo, se atreven con cualquier género sobre el escenario, desde números de revista, pasando por el vodevil, a comedia de situación o funciones infantiles. Con más épica que gloria, dan lugar a las más divertidas situaciones.

*Camioneta y manta* muestra la vida de unos artistas menores, repasa distintos estilos de comedia y provoca una carcajada continua, acompañada de ternura y emoción.







# CINCO HORAS CON MARIO
## LOLA HERRERA

Abuztua **02 - 05** Agosto

**VICTORIA EUGENIA**
**20:00**
**28 € / 24 € / 20 €**
castellano

*Cinco horas con Mario*, espainiar narratiba garaikideko eleberri garrantzitsuenetako bat, 1979ko azaroaren 26an eszenaratu zen lehen aldiz, Madrilgo Teatro Marquinan. Orduan, Lola Herrerak egin zuen Carmen Sotillo protagonistarena, eta orain, ia 40 urte geroago, agur esango dio bere ibilbideko pertsonaiarik garrantzitsuenari, espainiar dramaturgia garaikideko esanguratsuenetako bati.

Espainiako bazter guztietara iritsiko den bira batez esango dio agur Miguel Delibesen testuari. Eszena-zuzendaritza Josefina Molinarena da, eta ekoizpena, berriz, Pentación Espectáculos eta Sabre Producciones-ena.

*Cinco horas con Mario,* una de las novelas más importantes de nuestra narrativa contemporánea, fue llevada a escena por primera vez el 26 de noviembre de 1979 en el Teatro Marquina de Madrid. Lola Herrera dio vida entonces a Carmen Sotillo y ahora, casi 40 años después, se despide del personaje más importante de su carrera y uno de los más relevantes de la dramaturgia española contemporánea.

Esta despedida del texto de Miguel Delibes será con una gran gira que recorrerá toda la geografía española. La dirección de escena es de Josefina Molina y la producción de Pentación Espectáculos y Sabre Producciones.



# CONVERSACIONES CON MAMÁ
## MARÍA LUISA MERLO
## JESÚS CISNEROS

Abuztua **06 - 12** Agosto

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00**
**25 € / 20 €**
castellano

Amak hirurogeita hamasei urte ditu, eta Jaime semeak, berriz, berrogeita hamar. Oso mundu desberdinetan bizi dira bata eta bestea. Jaimek emaztea, bi seme, etxe eder bat, bi auto eta kasu egin beharreko amaginarreba bat ditu. Ama bakarrik bizi da, eta duintasunez darama zahartzaroa. Baina egun batez ustekabea gertatzen da: enpresak kaleratu egiten du Jaime, langileen artean birmoldaketa egin beharra dela medio. Egoera tamalgarri horrek erabaki gogorrak harraraziko dizkio, ezin baitio eutsi ordura arteko bizi-mailari.

Mamá tiene setenta y seis años y su hijo Jaime, cincuenta. Ambos viven en mundos muy diferentes. Jaime tiene mujer, dos hijos, una hermosa casa, dos coches y una suegra que atender. Mamá se las arregla sola y sobrelleva su vejez con dignidad. Pero un día ocurre lo inesperado; la empresa para la que trabaja Jaime lo deja en la calle por razones de reajuste de personal. La lamentable situación lo lleva a decisiones drásticas porque no puede mantener su tren de vida.





# PAGAGNINI
## YLLANA & ARA MALIKIAN

Abuztua **08 - 09** Agosto

**VICTORIA EUGENIA, 20:00**
**26 € / 22 € / 10 €** castellano

Thomas Potiron, Eduardo Ortega, Guerorgui Fourdnajev eta Fernando Clemente musikari handien birtuosismoa dela bide, obra honetan musika klasikoko une gogoangarrienetako batzuk berpizten dira beste estilo garaikideago batzuekin batera, hala nola rocka edo popa. Emaitza antzerki-kontzertu jostagarri, indartsu eta harrigarri bat da. Generoak eta estiloak batzeko nahi betiereko horri jarraituz, kontzertu bat asmatzeko modua berrasmatu nahi da, ez bakarrik exekuzioaren ikuspuntutik, baizik eta, batez ere, ikus-entzuleen ikuspegitik. Ikus-entzuleak, hala ikasiak nola ikasi gabeak, begirada desberdin bat aurkituko du musika-pasarte hautatu hauetan (besteak beste, Vivaldiren *Lau urtaroak*, U2ren *With or Without You* edo Pachelbel-en *Kanona Re Maiorrean*).

Yllana eta Ara Malikianek ekoiztua, *Pagagnini*k musika eta Yllanaren umorea eta erokeria uztartzen ditu.

A través del virtuosismo de cuatro grandes músicos como Thomas Potiron, Eduardo Ortega, Guerorgui Fourdnajev y Fernando Clemente, *Pagagnini* repasa algunos momentos de cumbre de la música clásica, junto a otros estilos más contemporáneos como el rock o el pop. El resultado es un divertido, enérgico y soprendente des-concierto teatral. Con esta voluntad permanente de fusionar géneros y estilos, se pretende reinventar la manera de concebir un concierto, no solo desde el punto de vista de la ejecución, sino, sobre todo, desde la perspectiva del público. El espectador, ya sea profano o erudito, va a descubrir en esta selección de pasajes musicales (como *Las Cuatro Estaciones* de Vivaldi, *With or with out you* de U2 o el *Canon en Re Mayor* de Pachelbel), una mirada diferente.

Coproducido por Yllana y Ara Malikian, *Pagagnini* reúne en un mismo plano el humor y la locura de Yllana y la música.



# EZ DOK HIRU (AKUSTIKOA)
## TARTEAN TEATROA

Abuztua **08 – 11** Agosto

**VICTORIA EUGENIA CLUB**
8 - 10: **22:30**
11: **23:30**
**12 €**
euskara

*“Ez dok Hiru* (Akustikoa) euskal musikaren imajinario kolektiboan murgilduko gaituen ikuskizuna da. Gure modukoa, eroa, harrigarria, irrigarria azalez... Baina azal horren poro bakoitzari geure musikarekiko maitasuna dario. Gure musika ondarea, altxor bat da, gure memoria historikoaren lekuko emozionala”.

Publiko helduari zuzendutako ikuskizuna da, umorezkoa eta euskaraz. **Patxo Telleria**k testuak sortzeko eta **Mikel Martinez**ek, eta Telleriak berak, zuzenean antzezteko duten estilo paregabearekin, **Adrián García de los Ojos** pianojolearekin lagunduta eta **Jokin Oregi**ren zuzendaritzapean.

*“Ez dok Hiru* (Akustikoa) nos sumerge en el imaginario colectivo de la música vasca. De nuestro estilo, loco, asombroso, aparentemente irrisorio... un espectáculo que rezuma amor por nuestra música. Nuestra música es un tesoro, testigo emocional de nuestra memoria histórica”.

*Ez dok Hiru* (Akustikoa) es un espectáculo de humor en euskera dirigido al público adulto escrito por **Patxo Telleria** e interpretado por el propio Telleria y **Mikel Martinez**, bajo la dirección de **Jokin Oregi** y con **Adrián García de los Ojos** al piano.







# DESATADAS
## PAZ PADILLA

Abuztua **10 - 12** Agosto

**VICTORIA EUGENIA**
10, 12: **20:00**
11: **18:30 + 21:00**
**28 € / 24 € / 20 €**
castellano

*Desatadas* eszena bereiziak elkartuta osatutako komedia bat da. Eszena guztiek dute erro komun bat, ordea: gaur egungo bizitzako egoera guztietara iritsi diren gezurra eta eromena.

Hiru aktore ageri dira hainbat egoeratan, erritmo ezin bizkorragoan, eta horretarako egoera ezagun baina ikuspuntu harrigarritik ikusietan jardungo duten pertsonaien larruan sartuko dira. Kutsu garratza du komedia honek, errealitatetik abiatu eta ustekabera salto egiten du, horretarako hitza erabiliz tresna funtsezkotzat. **Natalie Pinot** eta **Rocío Marín**ek osatzen dute **Félix Sabroso**ren komedia honen aktore zerrenda.

*Desatadas* es una comedia construida a partir de escenas independientes con un fondo común: la mentira y la locura que tiñe todas las situaciones de la vida actual.

Tres actrices interpretan, a ritmo trepidante, diferentes situaciones metiéndose en la piel de distintos personajes que protagonizan situaciones reconocibles pero con un enfoque sorpresivo. Una comedia de tono ácido que parte de la realidad para dispararse hasta lo inesperado, donde la palabra es la herramienta esencial. **Natalie Pinot** y **Rocío Marín** acompañan a Paz Padilla en esta comedia de **Félix Sabroso.**



# SOLO FABIOLO GLAM SLAM
## FABIOLO

Abuztua **13 - 14** Agosto

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00 + 23:30**
**20 € / 15 €**
castellano

*Solo Fabiolo Glam Slam*ek umore desberdina proposatzen du. Espainian gaur egun gertatzen direnen satira fin bat da hau, *one-man show* formatuan, Fabiolo deritzon Madrilgo jet seteko pertsonaia pijo baten ahotik eta gorputzetik. Pertsonaia lotsagabea, hitzontzia eta makarra, aberaskume asko izan ohi diren bezalakoa. Rafa Maza aktorea tenistaz jantziko da gaurko kontuekin tenisean aritzeko, bere estiloan eta bere dotorezia esnobaz. Inork baldin badaki zer gertatzen den gizartearen goialde horietan, Fabiolok daki ondo, eta kontatzera etorri zaigu. Fabiolok baizik ez du klasea eta dotorezia sakean. *High style*ko bufoi bat da sarera igotzen denean; adeitsua, xaloa eta sinpatikoa, berriz, drivean; probokatzailea errebesean, eta kritiko zorrotza, betiere, match pointera iritsitakoan.

*Sólo Fabiolo Glam Slam* es una propuesta de humor diferente. Una exquisita sátira de la actualidad española en formato *one-man show* en boca y cuerpo de Fabiolo, personaje pijo de la jet set madrileña, irreverente, deslenguado y macarra como sólo los muy ricos saben serlo. El actor Rafa Maza se viste de tenista para pelotear con la actualidad con estilo propio y elegancia snob. Si alguien sabe qué se cuece en las altas esferas, ese es Fabiolo y ha venido a contárnoslo. Solo Fabiolo tiene clase y elegancia en el saque. Es un bufón *high style* cuando sube a la red, afable, fresco y simpático en el drive, provocador en el revés y siempre crítico mordaz cuando llega el match point.





# WE LOVE QUEEN
## BARABU–EXTRESOUND & YLLANA

Abuztua **14 - 19** Agosto

**VICTORIA EUGENIA**
14: **20:00**
15 - 18: **20:00 + 23:30**
19: **19:00**
**35 € / 25 € / 15 €**
castellano

Queen banda mitikoaren *Fanatiko Handia*k gidaturik, zeinak Rockaren katedral oso bat eraiki baitu bere banda gogokoenaren omenez, ikus-entzuleek Queen taldearen bizitza eta obra goraipatzen dituen liturgia bitxi batean hartuko dute parte. Ikus-entzule bati gonbit egingo zaio gauero agertokira igo dadin, bere presentziaz zeremonia bitxi horri buru emateko.

Eszenaratze harrigarria, zuzeneko musika eta Yllanak ikuskizunetarako eta jostetarako duen sen aparta: horiek guztiek egiten dute bat musika onez beteta eta indarrez gainezka dagoen show bat sortzeko, hasi eta buka hunkitzea eta entretenitzea helburu. *We love Queen* Barabu – Extresounden ekoizpena da Yllanaren zuzendaritzapean.

Guiados por el *Gran Fanático* de la mítica banda Queen, quien ha montado toda una catedral del Rock en homenaje y tributo a su banda preferida, los asistentes participarán en una extravagante liturgia de exaltación a la vida y obra de Queen. Uno de los asistentes será invitado cada noche a subir al escenario para consumar con su presencia la original ceremonia.

Una espectacular puesta de escena, música en directo y el sentido del espectáculo y diversión de Yllana, se juntan para crear un show cargado de buena música y rebosante de energía, y que pretende emocionar y entretener de principio a fin. *We love Queen* es una producción de Barabu – Extresound dirigida por Yllana.



# ZOAZ PAKE SANTUAN
ANE GABARAIN
MIKEL LASKURAIN

**ESTREINALDIA**
ESTRENO

Abuztua **16 – 19** Agosto

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00**
**20 € / 15 €**
euskara

Daraman bikote bizimodu aspergarriarekin amaitzeko, andreak, zirt edo zart, gizona pozointzea erabaki du. Ekintza gordintze aldera, egin nahi duena aitortuko dio eta giltzapeturik, etxe barruan azken orduak pasatzeko prest dago andrea. Baina aurreikusitako plana hankaz gora jarriko zaio...

Akats, ahuldade eta torpeziaz betetako bi pertsonaia ageri dira, baina, aldi berean, dibertigarri eta maitagarriak. Lehertzeko moduko komedia eta etengabeko ustekabez betea da *Zoaz pake santuan.*

Para acabar con la aburrida vida que lleva, una mujer decide, de una vez por todas, envenenar a su pareja. Para recrudecer el asunto, se lo confiesa al hombre y se dispone a pasar las últimas horas de él, encerrada en su casa. Pero el plan no saldrá como estaba previsto...

*Zoaz pake santuan* es una comedia desternillante y llena de imprevistos, en la que los personajes, a pesar de sus fallos, debilidades y torpezas, resultan divertidos y entrañables.





# EL FUNERAL
CONCHA VELASCO
ANTONIO RESINES

Abuztua **22 - 26** Agosto

**VICTORIA EUGENIA**
**20:00**
**28 € / 24 € / 20 €**
castellano

Lucrecia Conti, Espainiako zine, antzerki eta telebistako aktorerik garrantzitsuena, hil egin da. Hori dela eta, Kultura Ministerioak hil-beila handia antolatu du haren omenez antzoki batean, jendeak agur esan diezaion izar miretsiari. Haren biloba Ainhoa eta Mayte ordena jartzeaz arduratzen dira, jendearen txera-erakutsiak handiak baitira. Miguel ere agertzen da, lehengusu urrun bat, benetako senidetasuna ezkutuan duena.

Dena aldatzen da bertaratuak antzokian giltzapetuta geratzen direnean, Lucreciaren mamua agertzen baita agur t'erdi egiteko asmoz. **Clara Alvarado, Cristina Abad** eta **Emmanuel Medina** dira obra honetako aktoreak, eta **Manuel M. Velasco** zuzendaria.

Lucrecia Conti, la actriz más importante del cine, el teatro y la televisión de España, ha fallecido. Asistimos al gran velatorio que el Ministerio de Cultura ha organizado en su honor en un teatro para que el público pueda despedirse de su admirada estrella. Sus nietas Ainhoa y Mayte ponen orden porque las muestras de cariños son inmensas. También aparece Miguel, un primo lejano cuyo parentesco real es desconocido.

Todo cambia cuando los asistentes quedan encerrados en el teatro porque el fantasma de Lucrecia se aparece para despedirse a lo grande. **Clara Alvarado, Cristina Abad** y **Emmanuel Medina** completan el reparto de la obra dirigida por **Manuel M. Velasco**.



# MANDÍBULA AFILADA
## JON PLAZAOLA, NOEMÍ RUIZ

Abuztua **23 – 26** Agosto

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
23 - 25: **20:00;** 26: **19:00**
**25 € / 20 €**
castellano

Juan eta Laura. Laura eta Juan. Bizitza ulertzeko eta bizitzari aurre egiteko bi modu. Zeharo desberdinak dira. Eta, nola ez, elkar maite dute. Institutuan ezagutu ziren eta orain, 30etako krisialdian, berriro egin dute topo. Gau batean zehar, bete ez ziren ametsak eta oroitzapenak biziko diztuzte, ikusleak, barre-algaratik hausnarketara doazen bitartean: azkarregi hazi al gara? edo ez al gara hazi oraindik? helduez jantzitako haurrak al gara? edo umeak berriro izan nahi duten helduak? ze demontre espero du bizitzak gutaz? Bizitza ametsak dira, eta barreak, eta negarrak, eta isiluneak, eta begiradak, eta amodioa, eta amodio falta, eta amodio oparotasuna, eta ezinezko amodioa.

Eta hori guztia da *Mandíbula afilada.*

Juan y Laura. Laura y Juan. Dos formas de entender la vida, y de enfrentarse a ella. Son polos totalmente opuestos. Y, cómo no, se aman. Se conocieron en el instituto, y ahora, en una crisis de los 30 eterna, vuelven a encontrarse, y durante una noche se suceden los recuerdos y los sueños, especialmente aquellos que no se cumplieron, mientras el espectador pasa de la carcajada a la reflexión: ¿hemos crecido demasiado rápido? ¿O no hemos crecido en absoluto? ¿Somos niños con ropa de adultos? ¿O adultos que buscan desesperadamente volver a ser niños? ¿Qué demonios espera de nosotros la vida? Esta vida que son sueños, y risas, y llantos, y silencios, y miradas, y amor, y falta de amor, y exceso de amor, y amor imposible.

Y todo eso es *Mandíbula afilada.*





# MAGIA DE LA MENTE, NO TE CREAS LA VERDAD
## TONI BRIGHT

Abuztua **29** Agosto - Iraila **02** Septiembre

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00**
**22 € / 16 €**
castellano

*Volver a creer* ikuskizunaren ondoren, Toni Bright-ek, mago mentalista ospetsuenetako batek, bigarren ikuskizuna dakarkigu: *No te creas la verdad*, show harrigarri, erakargarri, dinamiko eta parte hartzea eskatzen duena, non ikusiko baita nola mentalista batek menderatzen dituen psikologia, jendarterako harremanen abilezia eta sugestioa.

Zenbait galderak –hala nola Ba al dago espirituekin harremanetan jartzerik?, Irakur al daiteke besteen gogoa eta izan al daiteke eraginik haien erabakietan? eta gisa horretako beste batzuek– erantzuna izango dute *No te creas la verdad* obran.

Después de *Volver a creer*, Toni Bright, uno de los más afamados magos de la mente, presenta su segundo espectáculo: *No te creas la verdad*, un show impactante, ameno, dinámico y muy participativo, en el que se verá cómo un mentalista domina la psicología, las habilidades sociales y la sugestión…

Preguntas como ¿Se puede contactar con los espíritus?, ¿Se puede leer la mente de las personas e influir en sus decisiones? tendrán respuesta en *No te creas la verdad.*



# JUNTOS
## KITI MÁNVER
## MELANI OLIVARES
## GORKA OTXOA
## INÉS SÁNCHEZ

Abuztua **30 - 31** Agosto –
Iraila **01 - 02** Septiembre

**VICTORIA EUGENIA**
30, 31, 02: **20:00**
01: **19:00 + 21:15**
**28 € / 24 € / 20 €**
castellano

Isabel etxebizitza xume batean bizi da, doi-doi bizi ere, Miguel seme elbarri, oldarkor eta eskuzabalarekin batera. Sandra alaba gazteak, zeina exekutibo arrakastatsua baita, hamar urte baino gehiagoz kanpoan bizi dena, ustekabeko bisita egingo dio, eta ondotik familia-harreman bihurriak hankaz gora geratuko dira gertaera ezusteko eta harrigarrien segidaren ondorioz, denak ere samurtasunez gainezka, tartean zorren bat edo beste delarik, eta umorea, umorea erruz eta gogotik. Komedia oso jostagarri bat, non auzitan jartzen baita zer den "normaltasuna" eta "familia" deritzogun mundu berezi horretan sakontzen baita.

Isabel vive, o mejor dicho, sobrevive, en un modesto piso junto a su hijo Miguel, un joven discapacitado, impulsivo y generoso. La inesperada visita de su hija menor, Sandra, ejecutiva de éxito y ausente desde hace más de diez años, hará que las complejas relaciones familiares se pongan patas arriba, encadenando una sucesión de inesperados y sorprendentes acontecimientos rebosantes de ternura, alguna que otra deuda pendiente y mucho, mucho humor. Una divertida comedia donde se cuestiona qué es la "normalidad" y se ahonda en ese particular mundo que llamamos "familia".





# LAS BICICLETAS SON PARA EL VERANO
## FERNANDO FERNÁN GÓMEZ

Iraila **05 – 09** Septiembre

**VICTORIA EUGENIA**
05 - 08: **20:00;** 09: **19:00**
**28 € / 24 € / 20 €**
castellano

1936ko udan, gerra zibila hasi zen Espainian. Madrilgo hirian, familia bat –don Luis, haren emazte Dolores eta Manolita eta Luisito seme-alabak– gerrateko egunerokoan bizi dira neskamearekin eta eraikineko auzoekin. Luisitok, nahiz eta suspensoa atera, aitak bizikleta eros diezaion nahi du. Baina egoerak erosketa geroko gerotan uztera behartuko du. Eta atzerapenak, gerrak bezala, uste baino luzeago iraungo du. Izan ere, Francoren tropak eta errepublikazaleak jo ta ke ari dira gerran, eta familia asko hiltzen dira, gosez nahiz fusilatuta.

**Patxi Freytez**, **Rocío Muñoz-Cobo**, **Diana Peñalver**, **Álvaro Fontalba** eta **Teresa Ases** dira aktore nagusiak, eta **César Oliva** dute zuzendari, **Fernando Fernán Gómez**en obra hau Teatro Españolen estreinatu zela 40 urte betetzen diren honetan.

En el verano de 1936 estalla la Guerra Civil. En la ciudad de Madrid, la familia formada por don Luis, su esposa Dolores y sus hijos, Manolita y Luisito, comparten la cotidianidad de la guerra con la criada y los vecinos del edificio. Luisito, a pesar de haber sido suspendido, quiere que su padre le compre una bicicleta. Pero la situación va a obligar a postergar la compra. Y el retraso, como la propia guerra, durará mucho más de lo esperado. Ya que las tropas de Franco y los republicanos estarán constantemente en guerra, haciendo que muchas familias mueran, por hambre o fusilados.

**Patxi Freytez**, **Rocío Muñoz - Cobo**, **Diana Peñalver**, **Álvaro Fontalba** y **Teresa Ases** encabezan un reparto dirigido por **César Óliva**, en el 40 aniversario del estreno de la obra de **Fernando Fernán Gómez** en el Teatro Español.



# EL ENJAMBRE
## VAIVÉN PRODUCCIONES

Iraila **07 - 09** Septiembre

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
07, 08: **20:00;** 09: **19:00**
**18 € / 15 €** castellano

Txikitako lagun koadrila bat asteburu pasa joango da landetxe batera beraietako baten ezkon aurreko agurra ospatzera. Urteak ordea ez dira alferrik pasatzen eta elkarren arteko lotura estua sentitu arren, ezer ez da garai batean bezala; edo bai...

Asteburu "eroa" izan behar zena, are gehiago erotuko da; trapu zaharrak, esan gabeko gauzak, esandakoak, alkohola, droga eta erlauntz bat. Esaten da erleak direla animalien erreinuan hobekien komunikatzen diren izakiak. Eta dantzan komunikatzen omen dira... **Itziar Atienza**, **Aitziber Garmendia**, **Sara Cozar**, **Itziar Urretabizkaia**, **Getari Etxegarai** eta **Leire Ruiz** dira lan honen protagonista, **Mireia Gabilondo**ren zuzendaritzapean.

*El enjambre*, Victoria Eugenia Antzokiak, Gasteizko Antzoki Zaharrak eta Arriaga Antzokiak ekoiztutako lana da Antzerkigintza Berriak programaren barne.

Un grupo de amigas de la infancia ha ido a una casa rural para celebrar la despedida de soltera de una de ellas. Pero los años no pasan en balde y aunque sientan un vínculo muy fuerte entre ellas, nada es lo que era; o sí...

Lo que a priori iba a ser un fin de semana a loco, enloquecerá un poco más si cabe; trapos sucios, cosas que nunca se dijeron, confesiones, alcohol, droga y una colmena. Se dice que en el reino animal las abejas son los seres que mejor se comunican. Y al parecer se comunican bailando... **Itziar Atienza**, **Aitziber Garmendia**, **Sara Cozar**, **Itziar Urretabizkaia**, **Getari Etxegarai** y **Leire Ruiz** protagonizan esta obra bajo la dirección de **Mireia Gabilondo**.

*El enjambre* es una obra coproducida por el Teatro Victoria Eugenia, el Teatro Principal de Vitoria y el Teatro Arriaga, en el marco del programa Nuevas Dramaturgias.



ESTREINALDIA
ESTRENO





# EL CASERÍO
## SASIBILL LIRIKA ELKARTEA
## ASOCIACIÓN LÍRICA SASIBILL

Iraila **12 - 13** Septiembre

**VICTORIA EUGENIA, 19:30**
**36 € / 25 € / 15 €**

*El Caserío* Jesús Guridiren euskal usadioei buruzko lana da, eta ekintzak Santiren baserriaren inguruan gertatzen dira. Santi gizon adinean sartu bat da, Ana Mari eta José Miguel ilobekin bizi dena. Euskal baserrietan izan ohi den familia-jarraitasuna atxikitzeko, Santik José Miguel eta Ana Mariren arteko ezkontzan ikusten du konponbidea. Ana Mariri, José Miguelez maiteminduta baitago, ondo iruditzen zaio, baina mutilak, pilotan jokatu eta jokatu, ez dio kasurik egiten neskari. Orduan, Ana Mari osabari eskaintzen zaio emaztetarako, eta horrek, zeloak ez ezik, maitasun sutsua ere pizten du José Miguelengan.

**Miren Urbieta-Vega** soprano donostiarrak, **Gerardo Bullón** baritonoak eta **Igor Peral** tenoreak hartzen dute parte ikus-entzuleek gehien maite eta goratu izan duten zarzuela honetan, bai eta **Klara Mendizabal**, **Ana Miranda**, **Iker Casares**, **Ekaitz González de Urretxu** eta **Sasibill Orkestrak eta Abesbatza**k ere, **Arkaitz Mendoza**ren zuzendaritzapean eta **Josean García** eszena-zuzendari delarik.

*El Caserío* es una obra de costumbres vascas de Jesús Guridi, cuya acción se desarrolla alrededor del caserío de Santi, un hombre maduro que vive junto a sus dos sobrinos, Ana Mari y José Miguel. Para conseguir la continuidad familiar que encierra el caserío vasco, Santi busca la solución en una posible boda entre José Miguel y Ana Mari. A Ana Mari, que está enamorada de José Miguel, le parece bien, pero éste se dedica a jugar a la pelota y no fija en ella su atención. Entonces Ana Mari se ofrece como futura esposa de su tío, lo que sirve para encender en José Miguel, además de celos, un verdadero amor por ella.

La soprano donostiarra **Miren Urbieta-Vega**, el barítono **Gerardo Bullón** y el tenor **Igor Peral**, junto con **Klara Mendizabal**, **Ana Miranda**, **Iker Casares**, **Ekaitz González de Urretxu** y **la Orquesta y Coro Sasibill**, dirigidos por **Arkaitz Mendoza** y con dirección de escena de Josean García, intervienen en una de las zarzuelas más queridas y aclamadas por el público.



# ETXEKO SALTSAK
## AITZIBER GARMENDIA, ANE GABARAIN, MIKEL LASKURAIN, AITOR FERNANDINO

Iraila **13 - 16** Septiembre

**ANTZOKI ZAHARRA TEATRO PRINCIPAL**
**20:00**
**20 € / 15 €**
euskara

Greg eta Ginny etxe berean bizi dira. Maitaleak dira eta bizimodu zoriontsuan, ustez, sekreturen bat baitago tartean, isil-gordean. Ginnyk gurasoen landetxera, bisita egitera doala esango dio, baina gezurretan ari da. Izan ere, Philip, bere maitale sekretuarengana doa, harremana bertan behera utzi behar dutela esateko asmoz. Gregek, susmo txarra hartuta, neska laguna segiko du eta bera baino lehen iritsiko da Philip eta Sheila bere emaztea, bizi diren landetxera. Ginnyren gurasoak direlakoan dago. Ginnyk Philipi aitaren plantak egitea eskatzen dio. *Etxeko saltsak* (Alan Ayckbournen *Relativity speaking* jatorrizkoan) endreduzko komedia bat da.

Greg y Ginny son una pareja de amantes que comparten piso. La aparente felicidad esconde un secreto: Ginny dice ir a ver a sus padres el fin de semana al campo, pero en realidad va al encuentro de su amante secreto, Philip, decidida a romper con él. Greg la sigue y cuando aparece en la casa de campo, antes que Ginny, cree que Philip y su esposa Sheila son en realidad los padres de su novia. Cuando llega ésta convence a Philip para que mantenga la ficción.
*Etxeko saltsak* (*Relativity speaking*, en su versión original, de Alan Ayckbourn) es una comedia de enredo.







# LOS GAVILANES
## SASIBILL LIRIKA ELKARTEA
## ASOCIACIÓN LÍRICA SASIBILL

Iraila **15-16** Septiembre

**VICTORIA EUGENIA**
**19:30**
**36 € / 25 € / 15 €**

Perun aldi luze batez bizi izan eta gero, Juan sorlekura itzuli da, zahartuta baina oso aberastuta. Etorrera ospatzean, Juanek zergatik alde egin zuen aitortzen du: Adriana zeritzon emakume bat maite zuelako. Adrianarekin elkartutakoan, Juanek haren alaba gaztea ezagutuko du, Rosaura, eta hartaz maiteminduko da sekretuan; beharbada, haren amak gaztetan zuen edertasuna gogorarazten diolako. Herrian horretaz ohartzen direnean, eskandalu izugarria pizten da, eta indianoaren lagun minenak ere haren etsai bihurtzen dira, eta mespretxua agertzen diote.

**Amparo Navarro**, **Elisa di Prieto**, **Alberto Arrabal**, **Javier Agüllo** eta aktore sail handi bat, bai eta **Sasibill Orkestra eta Abesbatza** ere, denak **Arkaitz Mendoza**ren zuzendaritzapean eta **Josean García** eszena-zuzendari delarik: horiek guztiek hartzen dute parte Jacinto Guerrero maisuaren zarzuela ezagun honetan.

Tras una larga estancia en el Perú, Juan vuelve a su aldea natal, viejo pero inmensamente rico. En la celebración de su regreso, Juan confiesa la verdadera razón de su partida: el amor de una mujer, Adriana. En el reencuentro con su antiguo amor, Adriana, Juan conoce a la joven hija de esta, Rosaura, de la que cae enamorado en secreto, quizá buscando en ella la belleza juvenil que no encontró en su madre. Cuando en la aldea caen en la cuenta de esto, el escándalo es mayúsculo y quienes se habían mostrado amigos íntimos del indiano, se declaran ahora enemigos y le desprecian.

**Amparo Navarro**, **Elisa di Prieto**, **Alberto Arrabal**, **Javier Agüllo** y un amplio reparto de actores, y la **Orquesta y Coro Sasibill,** dirigidos por **Arkaitz Mendoza** y con dirección de escena de **Josean García**, intervienen en esta popular zarzuela del maestro Jacinto Guerrero.



# LUZ
LASALA

ESTREINALDIA
ESTRENO

Iraila **22** Septiembre

**GAZTESZENA (EGIA)**
**20:00**
**10 €**

LASALAk Gazteszenan estreinatuko du bere azken lana, zentro horretan egindako zenbait asteko egonaldiaren emaitza. **Jaiotz Osa**, **Carla Diego**, **Garazi Etxaburu** eta **Paula Parra**k *LUZ* interpretatuko dute, **Judith Argomaniz**en zuzendaritzapean eta beraren koreografiarekin.

LASALA dantza garaikideko konpainia, Judith Argomanizen zuzendaritzapean, etengabeko araketan ari da hizkuntza fisiko bat eta egungo estetika bat sortzeko helburuz, taldearen kezkak islatu eta kezka horiei erantzuteko. Konpainia 2013an sortu zen, eta orain arte zazpi obra eman ditu; besteak beste, *MICROCLIMATE*, *TRIP*, *NOW* eta *HOOKED*. Azken biek sariak jaso dituzte.

LASALA estrena su último trabajo en Gazteszena, resultado de una residencia artística de varias semanas en el mismo centro. **Jaiotz Osa**, **Carla Diego**, **Garazi Etxaburu** y **Paula Parra** interpretan *LUZ*, bajo la dirección y con coreografía de **Judith Argomaniz.**

LASALA compañía de danza contemporánea dirigida por Judith Argomaniz se centra en la continua indagación por generar un lenguaje físico y una estética actual, queriendo atender y reflejar las inquietudes del equipo. Desde su creación en 2013, la compañía ha presentado un total de 7 obras, entre las que se encuentran *MICROCLIMATE*, *TRIP*, y las premiadas *NOW* y *HOOKED*, entre otras.







# CONTRA LA DEMOCRACIA
TEATRO DEL NOCTÁMBULO

Iraila **29** Septiembre

**IMANOL LARZABAL (LUGARITZ)**
29: **20:00**
30: **19:30**
**10 €**
castellano

Esteve Solerren *Contra la democracia*k ematen dio buru *Trilogía de la indignación*i, hamazazpi hizkuntzatara itzuli eta herrialde andana batean eszenaratutako obra honi. Extremadurako Teatro del Noctámbulo konpainia hurbildu da testu zorrotz eta garratz honetara, zeina zazpi koadrok osatzen baitute, beregainak denak, satirikoak, eta surrealismoaren poetika amets-girokoa, absurdoaren antzerkiaren umore larrigarria eta Alfred Jarryren sendotasun kritiko basatia batzen dutenak. Zazpi ikuskari surrealista sendo, egunetik egunera eskandalagarriagoa den engainu kolektibo bati buruz.

Oraindik ere ba al da inor uste duenik herritarrok gobernatzen dugula geure gizartea?

*Contra la democracia* de Esteve Soler cierra la *Trilogía de la indignación,* traducida a diecisiete idiomas y representada en multitud de países. La compañía extremeña Teatro del Noctámbulo se aproxima a este texto punzante y ácido, compuesto por siete cuadros independientes de naturaleza satírica que enhebran la poética sonámbula del surrealismo, el humor angustioso del teatro del absurdo y la contundencia crítica y feroz de Alfred Jarry. Siete visiones surrealistas y contundentes sobre un engaño colectivo cada día más escandaloso...

¿Todavía hay alguien que crea que los ciudadanos gobernamos nuestra sociedad?





# DEPEDRO

Urria **12** Octubre

**ANTZOKI ZAHARRA**
TEATRO PRINCIPAL, **20:00** **28 € / 25 €**
Kolaboratzailea En colaboración con:
**Get In**

Depedro Donostiara dator berriro, oraingoan banda eta guzti, *El pasajero* aurkeztera. Disko horretan, Calexico-ko kideekiko loturari eta mugaldeko kanta aberrigabearen aldeko apustuari eusten die, baina soinu-jolas berriak gehituta: afro-beat-a eta tribalismoa; estandarren musika amerikarrari egindako keinuak, eta diskoan han-hemen ageri diren arrasto sinfonikoak.

Depedro vuelve a San Sebastián, esta vez con banda, a presentar *El pasajero,* disco en el que mantiene alianzas con sus compañeros de Calexico y su pulso por la canción fronteriza apátrida, pero suma nuevos juegos sonoros: afrobeat y tribalismo; insinuaciones a la música de estándares americana, y trazas sinfónicas que empapan el disco.

# THE MUSICAL BOX
## A GENESIS EXTRAVAGANZA

Urria **15** Octubre

**VICTORIA EUGENIA, 20:00** **59 € / 55 € / 52 €**
Kolaboratzailea En colaboración con: **WiV Entertainment GmbH**

Genesisen tributu-bandarik onenak bidaia bat egingo du talde haren lehen urteetara: 1970-1977. Zuzeneko akrobazia ikusgarriz beteriko emanaldi guztiz indartsua da, museo batetik hartuak diruditen vintage estiloko musika-tresnak erabiltzen dituena, pista ikonikoen eta eszena-bitxikerien erritmo eromenezkoan.

La mejor banda de tributo a Genesis, The Musical Box, emprende un viaje a los primeros años de la banda: 1970-1977. Es una actuación de extraordinaria fuerza, llena de acrobacias visuales en directo, con un conjunto de instrumentos vintage que parecen sacados de un museo y un ritmo vertiginoso de pistas icónicas y rarezas escénicas.





# ERRITU
## KUKAI DANTZA & SHARON FRIDMAN

Azaroa **03 - 04** Noviembre

**VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA**
03: **20:00**
04: **19:00**
**24 € / 18 € / 10 €**

*Erritu* bizitzan zehar egindako bidaia bat da. Alegia, bizitzako faseak zeharkatzen ditu naturarekin eta komunitatearekin zerikusia duten pasabide-erritu indibidual eta kolektiboen bidez. Fase horiek jaiotzaren eta kaosaren artean dabiltza; tartean, bakardadearen mortutik pasatzen dira, eta elkartzera, maitasunera eta, azkenik, heriotzara iristen.

Errituak zubi dira bi alderen artean: batetik, gure izate indibiduala –iraganak, orainak, gerorako promesek eta aukerek betetzen dutena– eta, bestetik, esperientzia kolektibo erritualizatua –hor da beti erreferentzia gisa, baina etengabe ari da higitzen eta aldatzen–, eta bi aldeon arteko loturen zentzua aurkitzen saiatzeko balio digute. Espiritualtasuna, samurtasuna eta norberaren erabakimena batera doaz bidaia horretan, zeina, azkenean, kolektiboa baita, baina pertsona kontzienteenen ibilbideen eraginpean.

*Erritu* es un viaje vital que atraviesa mediante ritos de paso individuales y colectivos los distintos estados de la vida en relación con la naturaleza y con la comunidad. Estados que van desde el nacimiento al caos, pasando por el desierto de la soledad, hasta llegar al encuentro, el amor y, finalmente, la muerte.

Los ritos ejercen a modo de puentes para intentar descubrir el sentido de las conexiones entre nuestra existencia individual -cargada de pasado, presente, promesas de futuro y opciones- y la experiencia colectiva ritualizada, siempre referencial pero también en movimiento y cambio. Espiritualidad, ternura y decisión personal se dan la mano con un viaje que, al final, resulta colectivo pero influido por las trayectorias de los más conscientes.



## DESKONTUAK
DESCUENTOS

### -%10

**Donostia Kultura Bazkideak** Socias/os de Donostia Kultura
**Langabetuak** Personas en paro
**30 urtetik beherakoak** Menores de 30 años
**Pentsiodunak eta 65 urtetik gorako pertsonak**
Pensionistas y mayores de 65 años

**-%10: Donostia Kulturak antolatutako ikuskizun guztietan.**

**Deskontua leihatilan egingo da soilik eta ikuskizun bakoitzeko sarrera bakar bati egingo zaio.**
**Donostia Kulturako bazkideek, www.donostiakultura.eus/sarrerak webgunean erosiz gero, bi sarreratan eskuratu ahal izango dute deskontua, horretarako NAN zenbakia eta bazkide-pasahitza erabilita.**

- 10%: en todos los espectáculos organizados por Donostia Kultura.

Los descuentos se aplican en una sola entrada por espectáculo y sólo en taquilla.

Las/os socias y socios de Donostia Kultura que compren sus entradas en www.donostiakultura.eus/sarrerak obtendrán el descuento en dos entradas. Para ello, deberán introducir su número de DNI y contraseña de socio/a.

## ORDU GAZTEA

**30 urtetik beherakoek sarrerak 3 euroan erosteko eskaintza Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean, emanaldia hasi aurreko ordu erdian.**
**Info+: Victoria Eugenia Antzokiko eta Antzoki Zaharreko leihatiletan.**

Entradas a 3 euros para menores de 30 años en el Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal, media hora antes del inicio del espectáculo.
+ Info: en las taquillas del Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal

DESKONTUAK EZ DIRA BATERAGARRIAK
DESCUENTOS NO ACUMULABLES

**Informazio eguneratua** Información actualizada:
**www.donostiakultura.eus**



## SARRERA SALMENTA
VENTA DE ENTRADAS

**ANTZOKI ZAHARREKO LEIHATILA**
TAQUILLA TEATRO PRINCIPAL

**Kale Nagusia** Calle Mayor, 1
**20003 Donostia** San Sebastián
**TEL. 943 48 19 70**
**11:30 – 13:30 / 17:00 – 20:00**

**VICTORIA EUGENIAKO LEIHATILA**
TAQUILLA VICTORIA EUGENIA

**Argentinako Errepublika**
Rep. Argentina, 2
**20004 Donostia** San Sebastián
**TEL. 943 48 18 18**
**11:30 – 13:30 / 17:00 – 20:00**

**INTERNET:**




**DONOSTIAKULTURA.EUS/SARRERAK**

**DONOSTIAKO KULTURZALEEN KLUBA**
CULTURA MUY A MANO

**BAZKIDEAK**
SOCIAS/OS

**WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS/BAZKIDEAK**
ERREGINA ERREGEORDEA, 8 - 20003 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
TEL. 943 48 11 50 / DKTXARTELA@DONOSTIA.EUS

Diseinua: www.tga.eus

13.000 ale / ejemplares - 0,30 € ale bakoitza / unidad (BEZ barne / IVA incluido)

